

# Medicitarren abaroan

*Antton Peñalba Alberdi*



Zumaiako  
Udala



ZUMAIA  
BIZITZEKO  
DA

emskara  
txanpan

# Medicitarren abaroan

*Antton Peñalba Alberdi*

Julene Azpeitia 34. ipuin lehiaketa

2021

Zumaiako onenaren saria

2021eko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Antton Peñalba Alberdi (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Gauak, iluntasunak, irabazia zion lehia eguzkiari, Jaione eta Joseba Medicitarren sehaskara heldu zirenean. Bidaia prestatzen ari zirela, hainbat gida turistikoa eta webgunea begiratuak zituzten. Denetan esaten zuten Florentzia osoa museo eder bat zela, bertan, kaleetan, nonahi topa zitezkeela egile handien lanak: Michelangeloren David eta Garaipenaren Jenioa, Ammannatiren Neptuno, Donatelloren Judhit, Bandinelliren Hercules eta Caco, Vincenzo de Rosiren Hercules eta Diomedes... Berpizkundearen semeak eta alabak guztiak. Kanean ere Dante, Petrarca, Boccaccio, Maquiavelo, Leonardo da Vinci... Florentzia oso hiri ederra zela, alegia. Baina ez zuten horrelakorik ikusi Josebak eta Jaionek heldu zirenean.

Ilun zegoen eta argi bakan batzuek baino ez zuten geltokia argiztatzen. Argiaren kutsadura saihesteko hartutako erabakia ote zen? Aurrera egin eta ez zituzten han ez David, ez Hercules, ez Neptuno ez eta Boccaccio, Dante edo Petrarca ere ikusi. Europako beste hainbat eta hainbat herritako geltokietan bezala, Florentziako geltokiaren inguruan, etxegabeek, bizitzak gaizki hartutako emakumegizonezkoek, gaua pasatzeko aterpe bila bertaratuek eta pertsona arrazializatuek egin zieten ongi etorria Berpizkundearen sehaska izana zen hiri preziatua.

Obretan zegoen ate batetik irten ziren kalera geltokitik. Oso jende gutxi zebilen inguruan eta batera eta bestera ondo begiraturik eman zituzten lehenengo pausoak; izan ere, beti entzun izan zuten hirietako geltoki nagusien inguruan erre ibili beharra dagoela, motxila aurreko aldean ondo helduta lapurretak saihesteko. Kanean aurrera egin zuten ahala, hainbat hotelen, hotel txikiren eta Trattoria txiki eta merkeren argiak bistaratu zituzten. Ordura arte, isilik egin zuten bidea, inguruko ustezko gaizkile saldoak ez esnatzearen, baina argiak, zarata eta jendea ikustearekin batera piztu zitzaizen hizketarako adorea.

–Zer kale da hori?

Ezkerrera hartu behar dugu. Horrela dio Google Mapsek. 69.ean dago gure hotela.

Goizean goiz abiatuak ziren Santanderreko aireportutik Erromara eta han tren hartuta heldu ziren Florentziara. Zortzigarren bagoian egin zuten bidea. Ez zen ia

jenderik bagoian eta isilik egin zuten bidea, irakurtzen ari ziren liburua lagun zutela. Baziren bagoian pare bat familia, eta haien algarak eta kalakak bakarrik hausten zuten Joseba eta Jaioneren arteko ia erabateko isiltasuna.

–Oso ilun dago dagoeneko –Jaionek–. Arratsaldeko zazpi eta erdiak baino ez dira eta iluntzeko hamarrak direla ematen du. Esango nuke hemen gure herrian baino azkarrago iluntzen duela. Ez dugu bidean ezer ikusiko. Bueltan gozatu beharko dugu Toscanako parajeez.

Isiltasuna berriro. Eta aldian-aldian whatsapparen hotsa.

Pit, pit, pit. –Non zaudete? –Seme-alaben kezka.

–Trenean, Florentziako bidean –Josebak.

Pit,Pit,pit. –Ailegatzen zaretenean, abisatu, mese.

Guraso zahartuekiko seme-alaben kezka. Eta berriro isiltasuna.

–Bigarren geltokia da Florentzia, ezta?

–Bai, bai. Horrela dio atearen gainean dagoen pantailatxoak.

Eta berriro ere isiltasuna, bakoitza bere liburuari adi.

–250 kilometro orduko abiaduran goazela dio pantailatxoak.

–Bai, ikusten dut. Ez didazu esan beharrik. Abiada horretan segituz gero, ordubete eta erdian helduko gara.

–Bai, horrela dio ordutegiak, iluntzeko 20:50ean helduko garela.

Jaionek eta Josebak, Josebak eta Jaionek urte mordoa zeramatzaten elkarrekin. Eta denborak natura eta gainerako ia guztia higitzen dituen bezala, elkarren arteko erlazioa ere higitu samarturik zuten aspaldian.

Galdua zuten garai bateko elkarrekiko pasioa. Urruti ziren garai bateko musu sutsuak, belarrira xuxurlatutako maitea haiek. Urruti ukitu lizun haiek, titi punttetan, lepoan edo belarri atzean eta gingiletan emandako hozkadatxo haiek. Urruti adatsean, buruko ileen artean eta azalean behatz mamiekin egindako harramazkada gozoak. Eta batzuek eta besteek gorputz osoan zehar eragiten zizkieten hotzikara zirrargarriak.

Lagunartean zirenean, ez horrela baina, biak bakarrik zirenean, garai bateko fereka eta xuxurla haiek elektrizitatea bezala zabaltzen zirela gorputz gazte

haietan esaten zuen Josebak, eta hanketako behatz lodietan bonbillak jarri izan balituzte, piztu egingo zirela.

Jaionek, berriz, esaten zuen, neska artean hark ere, bien oraingo harremana bi neba-arreben artekoa bezalakoa zela, edo ikasle-pisu bateko bizilagunen artekoen antzekoa. Musuak masailean, bekokian; pa batzuen parekoak denak. Ez ote ziren biloben musuak haienak baino erotikoagoak!

Haragi apetitua iraungia eta garai batean hain trinkoak ziren haragi haiek ere zeharo lasaiak, gurituak eta eroriak.

Bizi-legea zioen sarritan Josebak. Arropa zaharrek beren kolorea galtzen duten bezala, maiztua zuten, itzalia, haragikerietan aritzeko irritsa. C'est la vie!

Isiltasuna zen aspaldian haien artean nagusi. Isiltasun lasai eta barea, baina isiltasuna. Orduak ematen zituzten elkarrekin ziren ere ohartu gabe, liburu on bana lagun zutela.

Galdua zuten garai bateko esan behar hura. Haiek bai garaiak, haiek! Ilusioa gainezka, mundua jan egingo zutelakoan, hankaz gora jarri, erro-errotik aldatu, irauli. 68ko maiatza eta Vietnameko gerra gertu ziren eta Euskal Herriko gazte asko eta asko engaiatuak zeuden, frankismoa botatzeko. *"Hik bultza gogor hortikan ta bultza nik hemendikan, Ikusiko dek nola nola laster eroriko dan"*. Gorriak biak, gorri-gorriak, amets egiten zuten askatasunarekin, mundu justuago batekin eta horretaz hitz- aspertu luzeak izaten zituzten. Amodio bizi batekin batera munduaren ikuskera ere partekatzen zuten. Iraultza eta bikote-bizitza antolatu beharrak hizketaldi luze eta sakonak eskatzen zizkieten bie.

Geroxeago, urte batzuk pasatuta, seme-alabak etorriko ziren. Orduan hizketa-gaia aldatu egingo zen. Haurrak bilakatuko ziren hizketaldi askoren erdigune: haurren gaixoaldiak, eskola, kuadrillako beste hainbaten seme eta alaben gorabeherak ...

Gero seme-alabak unibertsitatera joango ziren, etxetik alde egingo zuten eta biok bakarrik geratuko ziren, mutu. Hainbeste denbora zeramaten eurek bizitzaren erdigunetik kanpo, haien arteko hizketa-gaietatik kanpo!

Dena esana zutela, elkarri esan beharreko guztia esana ziotela zioten. Zer esan behar zioten elkarri, ez zekitenik! Elkarren ondoan egonda ere, hain zeuden urruti bata bestearengandik! Isilik gaur, isilik bihar, isilik etzi. Eta inoiz gairen bati buruz

hasten zirenean, laster ziren elkarri mokoka, liskar bizian. Laster zen bietako bat sakelakoa hartu eta googleatzen, nork ote zuen arrazoi. Eta laster ziren, "ikusten?", nik arrazoi! Hortxe bukatzen ziren haien kontuak!

Ezin hitz egin, euren sentimenduez. Hainbeste denbora pasatua zuten besteen kontuak ezpainetan! Hain zituzten galduak, ezkutuan, elkarrekiko sentimenduak! Elkar maite zutela esango zioten, bada, elkarri! Esan beharrik ere ba ote zegoen, bada, elkar maite zutela, hainbeste eta hainbeste urte elkarren ondoan izan eta gero! Marka da, gero!

Oraintxe hasiko ziren, bada, maite zaitut-ka, edo potxolo-potxolaka elkarri! Haiiek ez ziren kurtsi batzuk! Hori bai zela eridikulua egitea! Ez zekiten, bada, esan gabe ere, horrela zela?

Sentimenduak albora utzita ere, zail egiten zitzairen, mokotu gabe, egunerokoaz jardutea. Elkarrekin ibiliak ziren garai batean makina bat gerratan. Langileen eskubideak, giza eskubideak, Euskal Herriaren eskubideak; herrigintzan murgilduta. Baina denborak eta bakoitzaren lanak, batez ere, alderatu egin zituen munduaren ikuskeran. Joseba administrazioan aritu zen lanean, hainbat zerbitzu publikotako kudeatze-lanetan ardurak hartuta. Horrek poliki-poliki agintean zirenen pentsamoldera gerturatu zuen. Ordena mantendu beharrak, kudeatze zorrotzak, pragmatikak, garai bateko utopia bazterrean uztera eramán zuten. Langileen aldarrikapenak ezinezkoak ziren, sindikatuen eskaerak, batzuenak batez ere, ezkur-ametsak. *"Orain ere lortuko dutena lantegia ixtea izango da. Horiek ez dira mundu honetan bizi. Hobe lukete hainbeste aldarrikapenetan eta greba deitzen ibili baino auzolanean aritzea herria altxatzeko. Gure lekuan ikusi nahi nituzke, orduantxe konturatuko lirateke bai, zer den benetako herrigintza"*. Horrelakoak ateratzen ziren bere ezpainetatik. Beti zegoen ezinen bat, beste lehentasunen bat herritarren aldarriei bainaren bat jartzeko. Gehienetan agintearekin lerratzen zen.

Jaionek, berriz, nostalgiko samarra izaten jarraitzen zuen. Galdua zuen garai bateko gorritasun bizi hura, maiztua zuen, arrosatua, baina ezkerrekotzat zuen bere burua, eta beti zuen agintariek hartzen zituzten erabakiekiko bainaren bat, kritikaren bat, gauzak hobeto egin zitezkeelako ustea.

Herrian ziren gatazkei buruz aritzen zirenean –ez ziren aspaldi horretan ia aritzen– ia beti bat etorri ezinda amaitzen zuten, suak hartuta. Osasuneko eta zaintzako

langileek grebara egiten zutela, bizioz kexatzen omen ziren; Tubacexeko langileek grebari tinko eusten ziotela, makina bat zeuden soldata erdiarekin isil asko. Egoerak ez omen zuen haien eskakizunak onartzeko ematen eta deskuidatuz gero denak kalean bukatuko zutela. Pandemia garaian agintariak hartutako erabakiak bete-betekoak omen ziren eta gazteak, batez ere gazteak, oso intsolidarioak zirela, giza konpromiso txikia erakusten zutela. Ez denok, baina bai batzuek, betiko horiek, oraindik ere lehenari ihes egiteko gai ez ziren horiek.

Ezin bada, aktualitateaz, eguneroko giza arazoez, hitz egin haserre eta ahotsa goratuta bukatuko ez bazuten. Isiltasunak edo irakurketa isilak betetzen zituzten elkarren arteko hainbat eta hainbat momentu. Biak ziren irakurle amorratuak, bai. Pentsa zitekeen literatura mintzagai ezin hobea izan zezaketela isilune horiek betetzeko. Baina ezin, bada, horretan ere ganoraz ezkondu.

Joseba best-seller zalea zen. Almudena Grandes, Ruiz Zafon, Dolores Redondo, Julia Navarro, Maria Dueñas, Sara Mesa, Fernando Aramburu... zituen gogoko. Jaionek, berriz, hizki handiz idatzitako literatura aldarrikatzen zuen, istorio soil bat baino harantzago zihoan literatura, hain zuzen ere. Irakurle-talde baten sortzaile izan zen eta urteak zeramatzan, beste hainbat lagunekin batera, hilean behingo saioetara joaten. Dinamizatzaile moduko bat zuten taldean gidari eta haren eta kideen iritziak entzunda aberasten zituzten norberaren uste eta iritziak. Irakurketa komunitarioa egiten zuten. Harkaitz Cano, Irati Jimenez, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi, Karmele Jaio, Irene Nemirovsky, Virginia Wolf, Silvia Federici, Unai Elorriaga, Elio Vitorini, Pello Lizarralde, Carson MacCuler... ziren Jaioneren gau-mahaitxoko idazle kuttunetako batzuk.

Egia esan, zenbaitetan ez zitzaion batere samurra egiten Jaioneri esku artean zerabilen liburuari buelta ematea, gogotik ahaleginduz egiten zuen aurrera irakurtzen. Eta batzuetan lehenengo orrietan katigatuta geratzen zen. Baina, zer arraio! Ahaleginik gabe ez dago saririk, esaten zion bere buruari.

–Zeeee? Ze moduzko liburua duzue oraingoan? –galdetzen zion Josebak burlaizez.

–Ez dakit, bada. Ez da erraza, ez. Pare bat aldiz irakurri beharko dut ekarpenik egingo badiot taldeari.

–Intelektual usteko halakoak! Esaten ez dizut, bada, nik listo usteko kuadrilla bat zaretela!

Eta bide horretan ezin, bada, hizketan jarraitu. Biak irakurle bikainak izan eta ezin literaturaz hitz egin! Hori marka!

Biak lanean ari zirela eramangarria egiten zitzairen egoera. Nor berean aritzen zen egunaren zatirik handienera eta elkarrekin zirenean, azaleko kontuez arintzen zituzten isilaldiak.

Jaionek erretiroa hartu zuen eta Josebak, gazteagoa zenez, lanari lotua jarraitu zuen. Bakoitzak bere espazioa izaten jarraitu zuen. Joseba lanean eta Jaione, berriz, bere kontutxoekin. Bazuen, bai, okupazioa: emakumeen taldea zela, erretiratuen aldarrikapenak zirela, irakurle-taldea zela, euskara-taldea zela, herriko errefuxiatuen aldeko harrera-taldea zela... Hauxe esaten zion beti bere buruari: zeinen ederra den emakume okupatua izatea!

Duela bost hilabete etorri zitzaion Josebari ere erretiroa hartzeko garaia eta elkarrekin bizitzen ikasi beharko zutelako konturatu ziren. Ez ziren gauza gertatzen zitzaiena hitzetan adierazteko, baina bazuten partekatzen zuten nolabaiteko pentsamendua. Elkarrekin biziko baziren eta ez elkarren ondoan bakarrik, zerbait egin beharra zuten. Biak ziren gertatzen zitzaienaren jakitun eta horrek eraman zituen elkarrekin astebete Florentzian eta Erroman egitera. Ohiz kanpoko egoera batean biziko ziren, eta horrek lagunduko zien elkarrekin aurrera egiten. Hori izango zen bizitza berrira, erretiratu-bizitzara, egokitze hasierako pausoa, haurtzaindegira lehenengo aldiz joaten diren umeak egiten duten bezalako egokitzeapena. Horrek ekarri zituen Florentziara.

Tren-geltokitik gertu hartu zuten hotela. Hotelak ugari ziren inguru hartan. Alberto Nella zuen izena hotelak. Berandu iritsi zirenez, ez zegoen inor hotelaren harreran eta hitz eginda zuten bezala, giltzak atariko postontzi batean utzi zituzten. Albergoa, hotela, etxebizitza arrunt baten bigarren solairuan zegoen. Geletan banatutako etxebizitza bat zen. Beraiei 14. gela egokitu zitzaien.

Gela ireki eta elkarri begiratu zioten. –Merkea zen –Josebak– baina...

–Zer nahi duzu, bada, prezio horretan? Maria Kristinako suitea?

Ez zeuden horretara ohituak; biak goi mailako profesionalak izanda, urtero egiten zituzten hamabost bat egun hegoaldeko turismo-guneetan lau izarreko hoteletan, piszinarekiko hotel ederretan. Baina oraingoan propio erabaki zuten bidaia



merkea egingo zutela. Low costeko hegaldiak eta bigarren mailako hotelak. Marmarrean, baina onartu zuen Josebak horrela erabaki zutela.

Gela sofila zen, berdez pintatua, begietara egiten zuen berde urdinxka batez. Oheburuan bi txori kaiola baten inguruan. Ez ahal zitzazkien txori haiek, lotan zirela, mokoka hasiko? Egia esan, egoera irrigarri samarra zen, baina gela eta bainua garbiak zeuden behintzat. Gaitz erdi!

Nekeak hartuta zeuden biak. Maletak gelan utzi eta gertuko Trattoria batera joango ziren mokaduren bat egitera. Albergoak gertuan zuen restaurant batean zerbeit jan eta laster itzuliko ziren.

Hotela utzi eta ehun metro eskasera aurkitu zuten jatetxea, Trattoria Enzo y Piero. Hantxe afalduko zuten. Eseri eta laster inguratu zitzaaien jatetxeko zerbitzaria bonaseraka. Italian zer jango eta pasta jatea erabaki zuten. Aurretik caprese entsalada eta atzetik pasta plater bana.

Jaionek penneak eskatu zituen, penneak pesto saltsarekin eta Josebak tagliateliak funggiekin, perretxikoekin.

Oso giro lasaian afaldu zuten, bidaiako gorabeherak hizpide.

–Nekatu aurpegia duzu, Joseba!

–Bai zera! Ez nago nekatuta.

–Begi niniak txiki-txiki dituzu eta begirada nekatua.

Edariak eskatu eta pare bat argazki egin zituen Jaionek. Argazkian Joseba, garagardo bat eta kopa bat ardo zuri. Eta whatsapppean jarri zuen seme-alaben eta bere ahizpen taldean.

–Lehendabizi entsalada eta ondoren penneak pesto saltsatan eta tagliateliak funggiekin, perretxikoekin.

Berehala erantzuna. Pit pit pit Jaioneren ahizpa batena.–Peneak zuretzat izango dira, eh! Viciosilla!

Josebak soinua entzun bezain pronto galdetu zuen. –Zer esaten dute, bada?

–Esan diet penneak eta tagliateliak eskatu ditugula eta ahizpa gazteak esan dit peneak niretzat izango direla, jakina! Eta *viciosilla* deitu dit.

Barre maltzur bat marraztu zen bion ezpainetan. Oso giro lasaian zeuden, eta bidaiaren nekeak hartuta egon arren, oso umoretsu. Biek elkarri begietara begiratu zieten eta Jaionek Josebaren eskuak hartu zituen bereen artean eta behatz-mamiez Josebarenak laztandu zituen. Begirada gozo bat bota zion Josebak Jaioneri eta konplizitatea erakutsi zioten elkarri.

Postrerako mahats-tarta eskatu zuten. Bat biontzat eta tartarekin batera "vino santo" kopatxo bat atera zieten.

Bidaiak hasiera ezin hobea izan zuen. Gau zoragarria egiten zuen, epela, eta mahaitik altxatu zirenean, oinez abiatu ziren. Ordu erditxo egingo zuten oinez, hankak luzatu eta jandakoa arintzeko.

Abiatu ziren eta Josebak honela esan zion Jaioneri. –Ez dugu bide luzea egingo, ezta? Nekatu samar nago eta etzateko gogoa daukat.

–Ez ez –erantzun zion–; ordu erditxo bat eta buelta. Oso giro ederra dugu ibiltzeko.

Hori entzun eta zakar erantzun zion Josebak. –Ona ibiltzeko? Segi, bada, zu ibiltzera; ni banoa eta.

Jaionek harriturik jaso zuen Josebaren erantzuna. Zer esan ote diot ba horrela jartzeko? pentsatu zuen, baina tira! Berriro ere lehenera! Urak bere onera etortzen hasiak zirela zirudienean, berriro ere uholdea. Jaione ere mindu egin zen Josebaren zakarkeriarekin eta bata aurretik eta bestea atzetik, mutu, itzuli ziren hotelera.

Ez zen gaua laburra izan Jaionerentzat. Kosta egin zitzaion begiak biltzea. Etengabe pasatzen zitzaion burutik gertatutakoa. Zerk eragin ote zion Josebari halako aldarte aldaketa? Zer esan ote zion berak horrela erantzuteko? Nekatuta egongo zela, bai, baina hori ote zen dena? Makina bat buelta eman zizkion gertatutakoari eta idazten hastea ere pentsatu zuen. Horretan eman zuen gauaren zati handiena, idatzi gabe idazten. Jaiki eta benetan idazten hastea ere pentsatu zuen, baina ohe buruko argi txikia pizteak ez zuen egoera leunduko, Jaionek bazekien eta zenbateraino urduritzen zuen Joseba, logura zenean, oheburuan zuten argia piztuta izateak. Zenbat aldiz ez ote zion entzun Jaionek horrelakoetan: –Berandu da, Jaione, noiz itzaliko duzu argi hori. Ezin naiz lokartu, argia piztuta.

Nekeak zeharo jota, azkenean begiak bildu zituen. Izango ziren ordurako laurak ondo paseak.

Goizean, leiho erdi itxitik sartzen ziren argi-izpiek egun ederra iragartzen zuten.

–Egun on, txiki! Agurtu zuen Josebak Jaione.

–Egun on –erantzun zion Jaionek. Joana zen ekaitza. Ez zen beti horrela gertatzen. Askotan kosta egiten zitzaion Jaioneri buelta ematea. Nekez haserretzen zen, baina haserretzen zenean, kosta egiten zitzaion adiskidetzea, muturtuta ematen zituen batzuetan orduak, eta sarritan egunak ere bai.

Joseba pospoloak bezalakoa zen. Nahikoa zuen behin karrakatzea suak hartzeko, baina gutxi irauten zion suak.

Jaiki, dutxatu eta prestatu ziren gosaltzera joateko. Gosaldu eta zer egingo zuten erabakitzen eman zuten gosaria. Eguzki ikaragarria ekarri zien opari egunak. Ikuskizun ugari zituen hiriak eta, ohi bezala, Jaionek eginak zituen etxeko lanak, txukun asko gainera. Zerrendatuta zituen hirian ikuskizun zirenak. Berehala osatu zuten goizeko ibilbidea. Turismo-gida guztiek ikuskizun-izar jotzen zituztenetatik hasiko zuten tourra. Katedrala eta haren ingurukoak ikusiko zituzten lehendabizi, Duomoa eta ondoan zituen Baptisterioa eta Kanpandorra. Hiriko plano eskuetan utzi zuten hotela, goiz samar; izan ere, eguna motza zen eta ikuskizunak ugari. Kale artetik abiatu ziren. Ez zebilen jende askorik. Pandemiak utzitako ondorioak Florentzia aldean ere agerikoak ziren. Kale-kantoiari buelta eman eta han agertu zitzairen eraikin multzo zoragarria. Soineko zuriz, arrosaz eta berdez jantzitako hiru dama eder.

Baptisteriora joan ziren lehendabizi. Eraikin ederra, soila izan arren, apaingarri astunik gabea. Marra zuzenak ziren nagusi eta hiru ate ikusle guztien miresgarri. Gidek esaten zuten XII. mendean altxa zutela V. mendeko eraikin baten gainean. Ateen artean deigarriena brontzezkoa zen. Paradisuko atea esaten zioten. Testamentu zaharreko irudiek hornitzen zuten eta ikusleen begien altueran, ondo ikusteko moduan, egilearen eta haren semearen bustoak ziren agerian: garai hartan arte-lanari egiletza aitortzeko modua.

Ondoan Il Campanil zegoen, kanpandorra. Ikustekoa hau ere, baina guztiz bestelakoa. Marmol zuriz, berdez eta arrosaz egina, Carrarako zuria, Pratoko

berdea eta Marismako berdea. Eraikuntza lauki formakoa eta laurogei metro luzeko altuera zuena.

Azkenik Duomoa, katedrala. Marmolezkoa hau ere, kanpandorra bezala. Diotenez hau ere aurretik bertan zegoen beste eraikuntza baten gainean eraiki zuten XIII. mendean. Kupula, Bruneleschik XV. mendean egina, aitzindari izan zen Europa osoan.

Deigarria egin zitzairen hiruren fatxadan zeuden erliebeak, eta Baptisterioko brontzezko atea jatorrizkoen kopiak zirela.

Kanpoko aldea ikusita, barrura sartzerik merezi ote zuen erabaki behar zuten. Ez zegoen jende askorik eta ezta eraikinetan sartzeko ilara bukaezinik. Kontua beste bat zen. Eztabaidan hasi ziren.

Jaionek –Zer? Merezi al du horrenbeste ordaintzea barrura sartzeko?

–Kontxo! Merezi, jakina merezi duela.

–Badakizu nik beti arteak doanekoa izan behar duela defendatu dudala eta herritar guztien eskueran egon behar duela.

–Bai, denak doaneko, dena musu-truk. Eta nork ordaindu behar ditu mantentze-lanak eta bertako langileen soldatak? Zuek erraz banatzen dituzue egin beharrekoak, baina zuek ordaindu behar dituzuenean laster hasten zarete Jaurlaritzari edo Aldundiari kontu eske.

–Ez gara betikoan hasiko! Ez zaizu iruditzen Interneten baino hobeto ez ditugula inon irudi horiek ikusiko?

–Ez zaizu arrazoirik falta. Barruak ikusten emango dugun denbora kalez kale gora eta behera eta herriko azokak eta ikusten emango dugu. Hori da herriari eta bertako herritarren bizimoduari neurria hartzeko biderik egokiena.

Kalean aurrera egin zuten. Aurrera zihoan goiza eta kafetxo bat hartuko zutela erabaki zuten.

–Gustuko izango duzun kafetegi batera eramango zaitut –Jaionek.

Joseba mokofina zen, sibarita samarra eta hori bazekien Jaionek, Florentziako kafetegi zaharrenean eraman zuen. Concerto Paszkowskira. 1836an sortutakoa zen eta Errepublika Plazan zegoen. Gerturatu ahala begiak zabal-zabal egin zituen Josebak. Liluratuta zegoen, pozik. Garai bateko kafetegia zen, terraza

ikusgarria eta areto klasiko paregabea, piano eta guzti. Iruñeko eta Bilboko Iruña kafeak etorri zitzaizkion burura edo Vienako Café Centrala. Balkoi antzeko gelaxkak zituen eta horrelako batean eseri ziren. Hura poza Josebarena!

–Uno macchiato e uno capuccino. Joseba zen capuccino zalea eta askotan hartzen zuen, Donostiara joaten zirenean batez ere.

Jaionek bidaietan aldian eramaten duen agenda moduko bat atera zuen eta idazten hasi zen, uste baitzuen Josebak liburua atera eta irakurtzen hasiko zela, beste hainbatetan egiten zuen bezala. Baina Josebak ez zuen libururik atera eta gainera Jaioneri kontu hartzen hasi zitzaion.

–Baina, zer idatzi behar duzu orain?

–Uste nuen irakurtzen hasiko zinela eta horregatik atera dut agenda. Eguneroko baten antzeko zerbait idazteko asmotan naiz. Badakizu, gero ondo etortzen dira hartutako notatxoak, egindako zenbait gauza gogora ekartzeko orduan.

–Ez dauzkazu, bada, ehunka argazki? Ez al dira nahikoa gauzak gogora ekartzeko?

–Beno, bai! Baina badakizu azken bolada honetan ipuinen bat zirriborratzen aritu izan naizela eta horrelakoetan ondo etortzen zaizkit idatzitako zirriborroak. Gainera iaz ipuin-lehiaketara ere bidali nuen ipuin bat eta, zeinek daki? Baina, barkatu. Zuk irakurri behar ez baduzu ez naiz ni ezer idazten hasiko. Idatziko dut iluntzean hoteleratzen garenean.

Ingurukoak nongoak ote ziren, aurreko urteen aldean jende gutxi samar zebilela, nora joango ziren altxatzen zirenean... Lasai eta alaitsu jardun zuten. Hiriko planoan begiratuta konturatu ziren bidean, Palazzo Vecchioren eta Piazza de la Signoriako bidean, bazela merkatua, Merkatu Zentrala. Hantxe sartuko ziren eta hantxe hartuko zieten bertako bizilagunei neurria: zer jaten zuten, zer prezio zituzten salgaiak ... Sarritan egiten zuten hori kanpora joaten zirenean.

Merkatuaren inguruko kaleetan postu mordoa zegoen. Larrua saltzen zuten: poltsak, motxilak, jakak... Era guztietako larrukiak.

Ate nagusitik sartu ziren. Sarreran bertan azken aldian hiri guztietako merkatuetan mokadu bat egiteko boladan dauden taberna modukoak. Florentzian ere ez ziren horrelakoak falta, baina hori alde batera utzita barazkiak, arrainak eta haragiak zer-nolakoak ziren eta zer preziotan saltzen ziren jakin nahi zuten.

–Era guztietako frutak eta barazkiak daude hemen: letxugak, alberjiniak, kuintxoak, era guztietako piperrak, pepperoniak, piperrinak lekak, brokoliak...

–Denetik dago hemen. Bueno, porrurik ez dut ikusi –Jaionek.

–Ikusten leka luze horiek? Luze-luzeak dira, ez dago gurean horrelakorik. Eta tomatea. Hori ugaritasuna! Txikiak, handiak, ertainak, gordinak, lehorrak. Hori tomate festa dagoena! –Josebak.

–Pomodoroa, saltsa guztietako erregea! Pizzetan pomodoroa, entsaladatan pomodoroa, lasagnetan, eta era guztietako pastatan. Pomodoroa nonahi! Eta frutetan ere ez da ezere faltarik –Jaionek.

Aurrera egin eta pescherietan arrainak ugari, beren herrietan aurki zitezkeen oso antzekoak, baina mediterraneo aldekoak ugariak: arrainak, otarrainxkak, moluskuak... Denetik.

Ondoan, macelleriak, harategiak zeuden.

–Hau aberastasuna! Mila eratako hestebeteak eta ia berrogei motatako salamiak omen daude. Hor urdaiazpikoak, longanizak eta saltxitxak –Josebak – Txerriak ere ugari: hankak, hesteak, trippak, belarriak, buruak, muturrak. Oso tripa, barrunbe zaleak omen dira

Jakin-minak jota, txahalkiei ere erreparatu zieten. Haiek txuleta-zintak haiek!

–Hara Astigarragako txuletak! –Jaionek

Kilotik gorako txuleta ederrak ziren, bisteccak. Jan ere egin zituzten gau batean: bistecca a la fiorentina, parrilan erreak eta sagardotegietakoei inbidiarik izango ez lizkieketenak.

Eta azkeneko postuetan gaztak. Gazta zale amorratuak ziren biak.

–Hau paradisua!

Mila eratako gazta zoragarriak: parmigianoa, mozzarella, Erromako pecorinoa, gorgonzola, mascarpone...

–Ondo horniturik daude, bai, italiarrak jan kontuetan. Ez diegu guk, ez, leziorik emango –esan zuen Josebak.

Goizeko buelta amaitzeko Palazzo Vecchio edo Signoriaren Jauregia ikusiko zuten. Izen bera zuen plazan kokatuta zegoen jauregia, Piazza di la Signoria. Plaza

ederra zen, Florentziako plaza nagusia, sortu zutenetik. Duomoaren Piazza erlijio gunea zen eta Signoriaren Piazza botere zibilarena. Historiak dioenez, plaza horretan erre zuten Girolamo Savonarola heretikoagatik eta hor bertan erre zituzten Savonarolaren jarraitzaileek erlijio liburuak, poema liburuak, luxuzko objektuak eta beste hainbat eta hainbat liburu, bekatuzkoak zirelako eta handikeria bultzatzen zutelako.

Florentziara iritsi ziren egunean geltokian topatu ez zituztenak zeuden Piazzan. Han ziren Judhit eta Oloferne Donatelorenak, han Michelangeloren David, han Celliniren Perseo eta han Hercules eta Caco. Bertan, Neptunoren iturri zoragarria ere. Ez omen zen iturri hori florentziarren oso gogokoa izan egin zutenean eta XVI. mendean inauguratu zenean, honela omen zioten herritarrek: *Ammannato Ammannato, quanto marmo hai sciupato*. Ammannato Ammannato zenbat marmol galdu duzun alferrik.

Bukatua zuten goizeko tourra, ez ziren eta garai bateko turista amorratu haiek. Zerbait jan, arintxo, hotelean pare bat orduko atsedenaldea hartu eta jarraituko zuten arratsaldean.

–Zer egingo dugu arratsaldean, nagusi? –galdetu zion erdi txantxetan Jaionek Josebari.

Ez zitzaion Josebari Jaioneren txantxa gehiegi gustatu eta muturra zimurtuta –Nagusi? Zuk erabakiko duzu eta, beti bezala, egingo duguna. Izena nagusi eta izana morroi!

–Gaurkoz nahiko harri eta eraikin ikusi ditugu, arratsaldean kale artean paseoan ibili, kafetxo bat hartu... Nik patxadaz hartuko nuke –proposatu zuen Josebak.

–Ederki –Jaionek–. Arratsaldean ibaiaren beste aldera joango gara, Arno ibaiaren beste aldera, Oltrarno-ra, eta paseo eder bat egingo dugu han zehar.

Jaionek prestatua zuen arratsaldeko plana. Lehendabizi ibaia zeharkatzen zuen zubia ikusiko zuten, Ponte Vecchio eta gero paseo eder bat egingo zuten Michelangeloren Piazzara eta San Miniato al Monte eliza ikusiko zuten. Eta bertatik ilunabarra gozatuko zuten hiri osoa ikusten zen gainalde hartatik. Ez zion, baina ezer aurreratu Josebari.

Hoteletik irteterako hasi zitzaion Joseba. –Nora?

—Lasai, gizona, ikusiko duzu nolako parajeetara eramango zaitudan.

Ibaia zeharkatu zuten Ponte Vecchiotik. Ponte Vecchio hiriko zubirik zaharrena zen. Zubi bitxia benetan. XIV. mendean eraikia, oso arkitektura bitxia zuen. Zubiak espaloietan etxe txiki batzuk zituen. Cosme I.ak eraiki zuen zubia bizilekutik lanera joaterakoan herri xehearekin topo ez egiteko. Hasiera batean espaloietan zeuden etxetxoak harategiak ziren, baina harakinak oso kuxidade eskasekoak ziren eta haragi hondakinak ibaira botatzen zituzten. Hori zela eta, bota egin zituzten eta haien ordez beste artisau batzuek hartu zituzten etxeak, zilargileak eta bitxigileak. Han ikusi zituzten zubian Josebak eta Jaionek hiriko bitxi-denda dotoreenak.

Zubia pasatu eta abiatu ziren ibaiaren ondoko bidetik. Ibaiko haizeak jotzen zuen eta oso giro atseginean egin zuten lehenengo ordu erdia edo. Handik gutxira bideak gora egiten zuen eta minutu batzuk egin eta hasi zen Joseba:

–Oso gora igo behar dugu? Badakizu ez naizela nik oso aldapa zalea.

Jaionek ez zion erantzun eta behetik gora segitu zuten. Aldapa pikea zen benetan eta laster hasi zen Joseba arnasestuka. Ez zirudien oso gustura eta gora egin ahala bien arteko giroa gaiztotzen hasi zen.

–Oso gora joan behar dugu? Horrela jarraitu behar badugu, nik buelta egin eta behera joango naiz.

Egoerak su hartuko zuen beldur zen Jaione eta Joseba lasaitzen ahalegindu zen.

–Hor gain horretan ikusten duzun elizatxoa ikusiko dugu eta gero han beherago ikusten duzun plaza horretatik paradisuko ilunabarra.

Aldapa bukatu zenean, eskailera mordo bat. Han Josebak planto egingo zuela, ez zuela aurrera egingo. Jaionek aurrera isil-isilik. Azkenean, heldu ziren elizatxoa zegoen pareraino. Ez zen giro bien artean. Josebak golkoan zeramatzan penak.

San Miniato al Monte eliza txiki bat zen. Erromaniko zoragarria. Hori ikusi zuenean, aurpegia aldatzen hasi zitzaion Josebari. Bekokia beltza oraindik, –eskapada ederra egin duzu! –esan zion Jaioneri artean oraindik burua irakiten zuela. Elizaren fatxada zuria eta berdea zen eta ondoan kanposantu txiki bat zuen. Italiako eliza erromaniko ederrenetakoa zen. Barruan marmolezko zutabe ederrak eta paretak mural zoragarritz jantziak. Ikuskizunak hoztu zion Josebari burua eta, erdi marmarrean bazen ere, aitortu zion igotzea merezi izan zuela. Elizaren ederrak libratu zituen zaputzalditik.



Jaitsi egin ziren gertu zegoen plazara. Turismo-gidak egina zuen lana eta ugari ziren bertaratutakoak, guztiak, haiek bezala, gain hartatik ilunabarra ikustera joanak. Handik ikusi zuten eguzkia ezkututzen hiriko eraikinen artean. Handik ikusi zuten Florentzia gorrixka bat, azken orduko eguzki-izpiek gorrixtatua.

Jaitsieran arrosaz betetako lorategia zegoen, Arrosekiko Lorategia deitzen zioten. Han, beste bisitari bati eskatuta, ilunabarrean eta lore artean argazki eder bat atera zieten.

Argazkia atera bezain pronto, han joan zen whasappetik seme-alaben, Jaioneren ahizpen eta Jaioneren langile ohien taldeetara. Handik gutxira pit, pit, pit eta erantzuna.

–Hara! Nobiotan bezala zaudete! –lagunen batek.

–Horra maitale pare! –ahizpa batek.

–Zer? –Josebak.

–Argazkia bidali diet eta hona zer erantzun duten–. Eta erakutsi egin zizkion bi erantzunak.

Joseba lasaitasunak hartua zuen ordurako eta barre txiki maltzur bat egin zuen Jaioneri begira. Harro sentitzen ziren, sutea izateko zorian izan zena une gozo bilakatuta. Horrela jaso zuen Jaionek iluntzean idatzitako eguneko kronikan.

Hurrengoa zuten azkenekoa Florentzian. Bazituzten oraindik ere bisitatu gabeko hainbat leku, baina ase samarturik zeuden eta eguna patxadaz hartzea erabaki zuten. Joana zen Europako hirietara joan eta azkeneko txokoa bisitatu beharreko afana, artean Internet gutxi batzuen pribilegioa zeneko garai hura. Eliza bat ikusi, Santa Croce, eta Oltrarno aldean ibiliko ziren, han ziren eta Pitti jauregi ederra eta eskulangileen estudioak eta dendatxoak.

–Eta arratsaldean? –galdetu zuen Josebak– Ez gara, bada, atzo bezala mendi gailurren batera joango, ezta? –begiak txiki, erdi irribarrez.

Ahotsaren tonuan nabaritu zion Jaionek Josebari bere galdera ez zela aurreko egunekoa bezain kategorikoa. Ez zituzten alferrik azkeneko berrogei urte luzeak elkarren ondoan igaro.

–Badira ibaiaren beste aldean izen handia duten lorategi eder batzuk, il Giardinino de Botoli. Goizeko buelta eginda, deskantsua hartu eta bertara joango gara paseoan eta han nonbaiten eserita zertxobait irakurriko dugu.

Ez ziren azkenean lorategiraino iritsi. Bidean gotorleku batean zegoen kafetegian eseri ziren eta bertatik ikusi zuten aspaldian ikusi zuten ilunabar zoragarriena. Hura bai, paradisukoa! Han gelditu ziren liburuak itxita hurrengo baten zain.

Iluntzean, afaltzen ari ziren bitartean, barre egin zioten elkarri, barre aurreko bi egunetan hutsagatik hartu zuten zaputzaldiagatik. Oso giro lasaian afaldu zuten une askotan elkarri begietara begira eta gustura Florentzian egin zituzten bi egunengatik. Hoteleratu, maletak prestatu eta etzan egin ziren. Jaionek egunerokoa osatzeari ekin zion eta luze idatzi zuen.

Ez zion Josebak argia itzaltzeko esan, baina galdetu zion:

–Zer idazten ari zara, txiki! Honezkero nobelaren bat idatzi duzu.

–Hor nonbait –izan zen Jaioneren erantzuna.

Eta Joseba loak hartu zuen, Jaionek idatzi eta idatzi segitu zuen bitartean.

Argitu zuen eguna. Tristeagoa aurrekoak baino, baina aurpegi alaia zuten biek. Musu bero bat ere eman zioten elkarri egun onarekin batera.

Bukatua zitzaien Florentziako egonaldia eta Erromarako bidea hartuko zuten goizaren erdi aldera. Trenean egingo zuten bidaia, eta egun argiz joango zirenez, Toscanako lurrez gozatzeko parada izango zuten.

Bidaietan egiten ohi zutenenez, liburu eder bana irakurtzen hasi ziren, baina Josebak jakin-minak eraginda edo, egunerokoan zer idatzi zuen irakurtzen utziko ote zion eskatu zion Jaioneri. Jaionek, baietz, ez zuela ezkutatzekorik.

Joseba egunerokoa irakurtzen hasi zen. Jaionek adi-adi begiratzen zion aurpegira, jesturik egiten ote zuen, nolako begi-arteak jartzen ote zuen. Arreta handiz irakurtzen ari zela ematen zuen eta tarteka begiak altxa eta Jaioneri begiratzen zion, poz-keinua begietan eta ezpainenetan. Ez zion txintik ere esan dena irakurri zuen arte. Ia ordu erdi eman zuen begiak adi-adi. Eta bukatu zuenean, buruarekin baiezkoko keinu moduko bat egin eta, irribarre gozo bat ezpainenetan, gerturatu eta musu bero bat eman zion.

Ez zuten Florentzian abagunerik izan eraman zituzten liburuak irakurtzeko.